

## KOSTUEN EGITURA

Mcbaxerri enpresa fast food kate bat da, eta beste enpresetatik desberdintzen gaituena gure produktuen jatorria eta erabilera da. Izan ere, gure produktu gehienak guk lantzen ditugu eta guk ekoizten ditugu, barazkiak edo haragia adibidez. Hala eta guztiz ere, hornitzaile gutxi batzuk ditugu edari batzuk ekartzeko; korrikolari edo fanta modukoak. Beste hornitzaile batzuk ondoko baserritarrak izaten dira, hauek, guk eskaintzen ditugun baino ekoiztu ezin ditugun produktuak ekoizten dituzte, gazta edo garagardoa bezala. Beraz, produktu guztiak bertakoak dira eta naturalki landuak.

Hori kontuan izanda antzeman daiteke gure gastu gehienak ekoizten ditugun produktuen ekoizpen prozesuan pilatze direla. Hasteko, argitu behar dugu ordainduta daudela ditugun lurak eta horrek kostuak asko murrizten ditu, dena den, ekoizten ditugun produktuen ekoizpena garestia da eta lan asko behar du, barazkien zainketa egin behar da eta horrek hilabetean 120€ko kostua suposatzen du, bestalde animalien zainketa 400€tara iritsi daiteke, hori arazoak kotuan hartu gabe.

Jatetxearen egiturari eta itsurari dagokionez ez dago arazorik ezta kosturik, baserria hasieratik sukalde industrial bat zekarren eta horrek asko lagundu du gure enpresa martxan jartzen, alabaina, hain sukalde handiaren mantentzea lana 50€ko kostua du hilabetean.

Argindarra eta bestelako energiak hilabetean 930€tara iristen dira: urak 170€, elektrizitateak 400€ eta gasak 360 € kostatzen dute. Hau gure gastu handiena izaten da hilabetean; gehien bat neguan, prezioak altuagoak direlako eta gainera berogailua jarri behar delakao, hotzaren arabera 100€ gehiago kosta dezake.

Materialak ere bere kostua du, gehien bat hasieran. Sukaldeko materiala, hau da, zartagiak, lapikoak... 500€ko inbertsioa suposatu dute hasieran, gero urteekin joango gara puskatuak edo zaharkituak daudenak aldatzen. Ofizinako materiala, asko ez izan arren 60€ko inbertsioa izan da eta hau ere aldatuz joan behar da eta sukaldeko materiala baino maiztasun gehiagorekin.

Bezeroentzat eskuragarri dagoen materiala, esate baterako, mahai-ohialak, goilarak, platerak... 300€ ko inbertsioa izan da.

Ezin beteskoak diren beste kostu batzuk enpresa honen sorketaren oinarriak izan dira. Aipatu behar den lehenengoa erantzukizun mugatutako sozietate baten eraketa izan da, honek 3000€ kostatzen ditu, beste forma juriduko desberdin batzuk daude hasierako kostu txikiago bat eskaintzen dutenak baino gure usteetan forma hau zen gure enpresaren nahietara gehien moldatzen zena.

Diru guzti hori ordaintzeko banku batean eskatu genuen 3500€ko mailegu bat eta horren interesak 80€ izatera ailegatzen dira. Zazpi hilabeteetan ordaindu behar dugunez 11€ko gastua da hilabetero.

Azkenik egiten dugun eskariaren kostuak ditugu, eskari honetan gure janaria egiteko beharrezkoak ditugun elikagaiak baino guk ezin ditugunak ekoiztu eskatzen ditugu, hau da, hirina, olio, azukrea, gatza... Edari batzuk eskatzen ditugu baite ere lehen aipatu ditudan Korrikolari edo Fanta edari horien adibide dira. Kostu hau guztira 800€etara iristen da hilabetearen bukaeran, gainera eskari handia baldin badago gehiago izatera iritsi daiteke.

Guztira enpresak 7025€ko inbertsioa eskatzen du hasieran baino hilabeteko gastuak 2315€koak izango ziren. Guzti hau kalkulatu egin da enpresa martxan jarri gabe, horrek esan nahi du prozesuan hainbat prezioen edo kantitateen aldaketa gerta daitezkeela.